

## Martin Ugalde lanean biluztuz

*Beterriko liburua, 2001-01.*

*Caracasen idatzi nuen Iltzalleak, nire lehen liburua*

1947. urtean Caracasera joan nintzen bizitzera. Hogeita bost urterekin iritsi nintzen hara. Aurrez ez nuen sekula lerro bat idatzi, Francok ez baitzuen garai hartan ezer idazten uzten, ez euskaraz ezta gazteleraz ere. Nahi nuen arren, hara joan aurretik nik ez nuen sekula ezer ere idatzi. Hara joan nintzenean hasi nintzen idazten, *Elite* izeneko aldizkari batean, Caracasen. garai hartan bakarra zen aldizkari hura, gerora sortu ziren besteak. Lanean hasi nintzenean venezolarrek lioketen moduan "jojotoa" nintzen, hasi berria eta lan egiteko prest nengoen beti. Banuen ikasteko eta lanerako gogoia. Zazpi bat urtez aritu nintzen aldizkari honetan lanean. Gero, lanez aldatzeko egokiera izan nuen, petrolera batean aritzekoa eta hantxe hasi nintzen lanean. Gaztea nintzen oraindik, orduan ari nintzen hango bizimodura ohitzen, lanean eta baita ikasten ere; hori guztiagatik pozik nengoen bizimodu berriaren aurrean, baina beste alde batetik triste nengoen oso. Herriminak mintzen ninduen, Euskal Herriko egoera txarraren oihartzuna hain urrunetik entzun beharrak. Nire ingurukoen, pertsona maiteen galtzeak... EAJ-ren barruko lan politikoetan aritzen nintzen orduan eta garai horretan lagun baten eskutitza jaso nuen, nirekin batera lanean ziharduenarena. Ikusten nuen nire lagunak harrapatu eta kartzelaratuak izan zirela; ni, berriz, aldegina nintzen. Bi kontu oso ezberdinak ziren, biak beharrezkoak. Nire burua prestatu behar nuen egin beharreko lana ongi egin ahal izateko. Bestalde, Euskal Herrira itzultzeko gogoia nuen. Gauzak honela, beka bat eman zidaten eta ikasten jarraitzeko apostua egin nuen. Ez nuen haatik Euskal Herria ahaztu, zerbait egin behar nuela sentitzen nuen eta aspaldidanik buruan nenbilkien ideia gauzatzea pentsatu nuen: Andoainen dantzari-txikiak ginen. Garai hartan, herriz herri eta festaz festa dantzan ibiltzen ginenak. Huraxe zen gure zaletasuna. Dantza irakasleak nire aita, orduan herriko kontzejala, eta aitaren lagun Nemesio Fernandez ziren. Anaia eta biok dantza taldekoak ginen. Dantzan aritzen ginen urte haietan Franco eta militarrek altxatu egin ziren eta gure irakasle Nemesio hil zuten. Bai!